

Instituzioak, autogestioa(k) eta zioak



**ITZIAR MORENO
MARTINEZ**
EUSKAL PRESO
POLITIKOA

*“Utzi aizkora
Sustraiak kolpatu
Eroriko da pozoiazen zuhaitza”
XIX. mendeko ludditen esaldia*

Aizkorarik gabe ez badago zuhaitza botatzerik, zuhaitza erabilia kapitalismoaren, patriarkatuaren eta zanpatzen gaituzten estatu errepresiboen ikur gisa; jakina, dirautela harro eta luzaz gure basoetako arbola ederrek! Bada, aizkorarekin hainbat zuhaitz ustel kolpatu genituen, baina koskor batzuk bota ere.

Aizkora utzi beharra eta, noraeza, dudak eta mudak. Nola erauzi baso kirastua, haritza zahar sendo zein kimu aske berriei bide emateko? Instituzioei lehentasuna emanaz? Kalea betez eta astinduz? Herri mugimendua berrindartuz? Tresna berriak sortuz? Esku bereko hatzamarren gisan ulertu ditut nik beti horiek guztiak, atzokoak eta gaurkoak.

Instituzioengan sinesten ez badugu ere, izan daitezkeelako zuhaitza zauritzeko arma eraginkorra; baina ez eurak bakarrik, ez eta egungo ordezkatzeko sistema sasi-demokratikoan sinesten dugulako ere. Gaurko erakundeak diren bitartean gutxi batzuen esku dagoen boterea, ez delako sekula egiazko askatasuna izango, botere delegazio horrek ukatzen duelako herritarren zuzeneko parte hartzea, erabakitzea, eta ekite bera.

Gutxi batzuen boterea vs Herri Boterea. Instituzioak vs Autogestioa –Buru-

jabetasuna-. Kropotkinek esaten zuen moduan, iraultza ez delako agintarien aldaketa soil bat, baizik eta garapen soziala oztopatu duten botere horien guztien deuseztatzea, herriaren botere-tzearen eskutik. Burgesiak, kapitalaren jabe den bitartean, ez duelako sekula inolako “esperimentu sozialistarik” garatzen utziko, instituzioen boterea bereganatzen badugu ere. XIX. mendean idatzi zituen hitzok badute, ene aburuz, gaurkotasun eskerga.

Ludditek, Ingalaterran zein munduko beste txoko batzuetan, mitologia eta irudimena lagun, euren lana lapurtzera etorri ziren makinak suntsitzen zituzten. Guk ere, Kantauriko begiko herri zahar honetan, badugu asmatzeko gaitasun handia gure borroka berregokitzeko, aizkorarik gabe ere zuhaitz ustelak botatzen jarraitzeko. Gakoetako bat izan daiteke herri mugimendua indartzea eta horretarako tresna berriak sortzea; burujabetzaren aldeko herri mugimendu horretan aske ekinez, eraginkortasunez saretzea; instituzioak, helburu baino, beste tresna bat direla ulertzea; baita ekonomia sozial eraldatzailea gauzatzeko, herri eta hiri proiektu txiki horien guztien sendotze eta biderketaz... Eta noski, kaleak astintzen jarraitzea, beti bezain gureak direlako. Oro ere ilusioz, Mab erreginak guri ere eman diezagukeen naturaren indarrarekin, eta arrazoiarekin. “Sorionekuak” gu! ●

Gauzez



**ITXARO BORDA
IDAZLEA**

Azken asteotan, ordua aldatuz gerostik bereziki, gau sakon, luze eta etengabe batean bizi naizela dirudit. Ene egiteko gehienak eguzkia sartu ondorengo uneetan gertatzen dira. Gustatzen zait alabaina, betidanik lo nekezeko gau-txorria izan naizela uste dudalako. Beltzaren oihalak troxatzen nauenean, gainera, dena hobekiago ikusten dut, kanpoa bai eta ezinegonak inarosten duen barnea ere. Argirik ez dagoenean, funtsean, batoren eta bestearen arteko ezberdintasunik ez dago.

Autoan, Nirvana *unplugged* dantzut, *Fantasia* eta *Zintzilik* diskoekin aldiz-

ka, euri zeharkariak autobusen leihoak jotzen dituen aldiz ene gogoeten *Belharrari* jarraitzen diot, gizaki fantomatikoekin batera muga pasatzen dut topotik jaistean eta *Crimson* podcasta jartzen dudanean jadanik Highway 63 ezagunetik banoa, ihesean bezala. Bizitzaren paradoxa: gauean guztia argi goa dela sinesten dut.

Aurpegiak hor dauzkate, memoriaren argi-ilunean gatibatuak, ardurenean ez dakidan arren nor non gurutzatu dudana, baina buru zokoan datxikat egundainoan, aipatu, eztabaidatu eta trenkatu dugunaren mamia. ●